

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

339 - 2025eko URRIA



MENDIAN GORA, BIZITZA

Lau ikastaro antolatu ditu Cedernak Lekunberrin

Lekunberriko Plazaolan, adinduei, merkatariei, autonomoei, enpresa txikiei eta edozeini zuzendutako ikastaroak egingen dira Urriaren 20tik 31ra. Ikastaro hauetan, oinarrizko mugikor tailerra, Banka digitala, online erosketak, Canva eta Excel erabiltzen ikasiko dute.

Ikastaro hauek Cederna Garalurrek antolatu ditu, Mimukai proiektuaren bidez, NASERTIC digitalizaziorako entitatearekin batera.

Informazio gehiago nahi baduzu, sar zaitez **mimukai.eus** edo **aventura-digital.navarra.es** web orrialdera edo deitu **948 012 012** telefono zenbakira.



Mugikorren tailerra (10 ordu)

adinduei edo erretiratuei zuzendua.

- **Data:** 2025/10/20 – 2025/10/24
- **Ordutegia:** 10:30 – 12:30
- **Lekua:** Plazaola (Lekunberri)

Banka digitala eta online erosketak (10 ordu)

adinduei edo erretiratuei zuzendua.

- **Data:** 2025/10/27 – 2025/10/31
- **Ordutegia:** 10:30 – 12:30
- **Lekua:** Plazaola (Lekunberri)

Sortu zure diseinuak CANVArekin (20 ordu)

merkataria, autonomo eta enpresa txikiei zuzendua.

- **Data:** 2025/10/20 – 2025/10/31
- **Ordutegia:** 14:30 – 16:30 (zehazteke)
- **Lekua:** Plazaola (Lekunberri)

Exceleko ikastaroa (20 ordu)

edozeini zuzendua.

- **Data:** 2025/10/20 – 2025/10/31
- **Ordutegia:** 17:00 – 19:00
- **Lekua:** Plazaola (Lekunberri)

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzí eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzia eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Ainhua Beraza, Aitor Irastortza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Ainhua Beraza, Ainhua Parareda, Araxes Ikas Komunitatea, Beñat Pellejero, Dimitrina Georgieva Stoykova, Garazi Moreno, Imanol Jaka, Iosune Garmendia, Irune Juanena, Izan Zubillaga, Izarne Eskamendi, Jon Ander Unanua, Jose Manuel Zubillaga, Juan Antonio Garaikoetxea, Kirolmank, Lekunberriko Udala, Oihana Goikoetxea, Plazaola Partzuergo Turistikoa eta Unai Lizarraga.

· PUBLIZITATEA:

Irati Moreno - 660 476 041

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

02

CEDERNA-GARALUR

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE
Lekunberriko bi zubiak

8

ELKARRIZKETA

"Jangela Batzordetik hasi gara Araxes eskolako jantokia kudeatzen"
Jangela Batzordea



12

BATZARRE

18

KULTURA

22

KIROLA

"S.D. Logroñes futbol taldearekin biziko dudaren denboraldiaz gozatu nahi dut"
Jon Ander Unanua Iraola
(Lekunberri)



28

PLAZATIK PLAZARA

"Betidanik asko gustatu izan zait etxeko gozogintza"
Dimitria Georgieva Stoykova
(Bulgaria-Lekunberri)



31

AGENDA



Aiur Goikoetxea Martirena

Urriaren 31n, 5 urte.

Zorionak pottoko!

Segi horrela, beti bezain irribarretsu bizitzaz gozatzen.

Egun polita pasa.

Musu erraldi bat etxekoen partez.



Aimar Ruiz Zabala

Irailaren 11n, 9 urte.

Zorionak Aimartxo! 9 urte jada!

Nola ari zaren handitzen!

Musu handi bat, asko maite zaitugu, bihotza!

Eneko Alustiza Sarasa

Urriaren 23an, 8 urte.

Zorionak pottoko! Jarraitu

horren jator eta bizkor!

Musu handi bat denon partez!



Joxe Barberena Imaz

Zorionak, attuna Joxe!

Segi beti bezain alai eta bizkor.

104 musu zuretzako famili osoaren partetik.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago! Idatzi iezaguzu WhatsApp bidez **660 476 041** telefonora edo **info@mailope.eus** helbide elektronikora hilaren 20a baino lehen.



Lagunasesoría S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhua

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com



LAPURRETAK LEKUNBERRIN

Irailan zehar Lekunberriko bi baratzeetatik hainbat barazki lapurtu dituzte: letxugak, tipulak eta tomateak.

Lehenengo kaltetuen hitzetan, "azken asteetan, gure baratzetik hamarnaka tomate eta letxuga desagertu dira" eta egun bat geroago, horrela adierazi zuten bigarren kaltetuek: "Irailaren 7an, iluntzean, hamarnaka tipula lapurtu zizkiguten".

Aldi berean, irailaren 8an, eskolako bizikleten aparkalekutik txirrindula bat lapurtu zuten.



LEKUNBERRI ZEHARKATZEN DUEN IBAIA GARBITU DUTE

Irailaren 20an, Lekunberri zeharkatzen duen Larraun ibaia garbitu zuten. Ekinen hura Lekunberriko Udalak eta Ondare Kultur Taldeak elkarlanean garatu zuten.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu zuten herritarrei "elkarrekin, Lekunberri garbiago eta jasangarriago bat lortzeko bidean gaude".



ZAINTZA HERRIAK: ZAINTZA KOMUNITARIOA ERAIKITZEKO PROZESU PARTE HARTZAILEA


Hurrengo hilabeteetan, Teknoadineko proiektua martxan dagoen zenbait udalerritan prozesu komunitarioak egingo dituzte, bakardadearen prebentzioa eta zaintza komunitarioa lantzeko.

Lehenengo aldi honetan 7 udalerrik parte hartuko dute: Arbizu, Lekunberri, Araitz, Larraun, Imotz, Arruazu eta Ziordi. Informazio gehiago nahi baduzu, sar zaitez <https://labur.eus/2o5qoyin> web orrialdean.

► Izarne Eskamendi Goikoetxea (Betelu)



*Urrian udazkenakin datoz
hosto marroi euri gardena
berezi hilabete hontako
hogeita zortzi garrena
hamazazpi betetzen ditut nik
bada adin bat polita dena
urte hontako oroitzapenak
nekin bizitzan barrena.*



Doinua: Aditu lagunak itsasoak. **Hurrengo:** Ibane Sarasa Tolosa (Atallu).

IV.TOKIKO PRENTSA JARDUNALDIA

**OTSAGABIAKO KULTUR ETXEA, JAVI ESEVERRI,
URRIAK 30**

PROGRAMA

16:30etan. Ongietorri Instituzionala
16:45etan. Hitzaldiak: Kilometro zero informazioa
17:15etan. Mahai-ingurua
18:00etan. Atsedena

19:30h. Jardunaldiaren itxiera.
(Itxieraren ondoren, talde-argazkia aterako da saridunekin, eta ondoren aperitiboa eskainiko zaie bertaratutakoei).

18:10h. Nafarpres eskola-sarien banaketa
18:30h.
Nafarpres Sarien II. Edizioa.
Sari banaketa.

IZEN EMATEAK



INSCRIPCIONES



Hurrengoa:

Iñigo Lasarte García (Lekunberri)



**Garazi Moreno Blas
(Aldatz)**

maite ditut maite gure bazterrak

Lekunberriko bi zubiak

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 3,12 km
Desnibela: 16 m
Zailtasuna: erraza

Zergatik aukeratu dut?

Lekunberriko inguru ederraz gozatzeko ibilbide paregabea delako aukeratu dut. Gainera, hurrekin egiteko ibilbide lasaia, eroso, motza, laua eta erraza dai.

Bidea:

- 1 Lekunberriko Beigorri parkean dagoen iturrian hasiko gara, eta zuzen jarraituko dugu ahateen putzua eta Toki Alai sagardotegia igaro arte.
- 2 Ondoren, autokarabanen aparkalekuan eskuineko bidetik jarraituko dugu bertako basorantz.
- 3 Hurrengo bidegurutzera iristen garenean, ezkerreko bidetik joko dugu, aldapa gora; eta ondorengo bidegurutzean, eskuinerantz abiatuko gara.
- 4 50 metro aurrerago, eskuineko xendatik joango gara. Zuhaitz handi bat ikustean, zuzen jarraituko dugu.
- 5 Ondoren, erreka iritsiko gara, eta bertan ur-putzu bat ikusteko aukera izango dugu. Zubia kontu handiz zeharkatuko dugu, eta bide gorriara iristean, eskuinerantz joango gara.
- 6 Bide gorria jarraituz, eta egurrezko zubia igaro ostean, eskuinetara joango gara.
- 7 Amaitzeko, zuzen jarraituko dugu eskola eta kiroldegia igaro arte; eta Toki Alai sagardotegia ikusten dugunean, ezkererantz joango gara ahateen putzuaren ondotik. Zuzen jarraituko dugu, Beigorri parkea berriro zeharkatu arte, eta iturrira iristean hasierako tokian amaituko dugu.

7



- Jangela Batzordeko Nere Sotil, nutrizionista (Betelu), Jon Altuna, Araxes Ikas Komunitateko zuzendaria (Ibarra), Nerea Martiarena, Gurasko Elkarteko bozeramailea (Araitz-Arribe), Sorkunde Sotil (Betelu) eta Maria Sotil (Betelu) gurasoak.

“Jangela Batzordetik hasi gara Araxes eskolako jantokia kudeatzen”



Haurrak Araxes ikastetxeko jantokian bazkaltzen.
Argazkiak: Sorkunde Sotil.

2025-2026 ikasturtean, Leitzako Erleta eta Beteluko Araxes ikastetxeetako jantokiak bertako udalek kudeatuko dituzte, 58/2024 Foru Dekretuak ahalbidetuta. Horrela, bertako menu ekologikoa, jantokiko hezkuntza eta elkarlana hobetu nahi dituzte.

Udalek jantokiko langileen eskubi-deak bermatu eta kontratazioaren subrogazioa bete dute. Gainera, zerbitzu berri honek erabiltzaileei ez die kostu gehigarririk ekarriko eta Hezkuntza Sailak laguntzak emango dizkie eskubidea duten ikasleei. 2025-2026 ikasturtean, jantokiak 175 eguneko zerbitzua eskainiko du, astean bost egun. Zerbitzua, haurrentzako, lehen eta bigarren Derrigorrezko Hezkuntzako Ikasleentzat izango da.

Araxes ikastetxeko jantokian gaur egun 33 ikasle finko daude, eta horrez gain noizbehinka erabiltzaileak ere onartzen dira. Proiektu honek eskualdeko jantokiak duindu nahi ditu, bertako produktuak eta menu osasungarriak sustatuz, beste esko-

lentzat eredu izanez.

Nola sortu zen Jangela Batzordea? Eta jantokia kudeatzeko proiektua?

Sorkunde: Lan taldea oso ongi sortu zen. Helburu amankomun batengatik elkartu ginen. Jantokiaren inguruan gauzak aldatu beharra zirela argi genuen.

Jon: Aurreko ikasturtean proiektuari buruzko hitzaldiak antolatu genituen gurasoak informatzeko, egoera zein zen azaldu eta aldaketa baten alde apustu egin nahi genuela adieraziz.

Maria: Bazkarien prezio igotzean eta bertako produktuen erabilera desagertzen ari zela ikustean, proiektua garatzeko unea zela era-

baki genuen.

Jon: Testuingurua egite aldera, gu eskualdeko eskola gara, eta legeak zioenez, Nafarroako Gobernuak lizitazio bat argitaratu behar zuen garraiatutako ikasleen jantokia eta garraio zerbitzua bermatzeko. Haiek arduratzen ziren denaz; lizitazioa argitaratzen zuten eta enpresak hori eskuratzeko lehiatzen ziren. Baina gure kasuan, jantokia ez zen errentagarria, eta askotan ez zen enpresarik aurkezten. Beraz,

“Bi jangela kudeatzea erronka handia da”

Nere Sotil

elikadura orokorra, legeak, hornitzaileak... Dena prestatu behar genuen. Uda honetan lan handia egin genuen, eta oraindik hasten ari gara. Egia esan, nik beti izan dut eskolako jantokiaren inguruan iritzi pertsonal bat: nire garaian oso ongi jaten genuen, baina azken urteetan gabezia handiak ikusi ditut. Orduan, bi jangela kudeatzea erronka handia da. Nire eguneroko lanarekin oso desberdina da, baina uste dut umeek jantokian ikasten dutena etxera

“Bazkarien prezio igotzean eta bertako produktuen erabilera desagertzen ari zela ikustean, proiektua garatzeko unea zela erabaki genuen”

Maria Sotil

eramaten dutela, eta askotan errazagoa dela umeek etxera eramatea, helduek umei irakastea baino.

Dena martxan jarri genuen, eta *feedback* oso ona izan dugu bai Leitzatik eta bai hemendik. Umeak oso gustura daude, platerak gustura jaten dituzte. Sukaldariak ere gogo handia dute, ilusioz eta goxotasunez ari dira lanean, lan handia egiten dute eta proiektua garatzeko ezinbestekoak dira.

Nutrizio aldetik elikadura egokiena eskaintzen dugu, ahal den guztia ekologikoa eta bertakoa.

Umeek gauzak probatzeko gogoia dute. Gainera, egia da haur askok elikadura-arazoak dituztela eta zenbait elikagai ezin dituztela jan; hori bertatik bertara kudeatzea oso onuragarria da, eta aurren, umeen kopurua bikoiztu egin da.

Hasiera ona izan dugu, umeak eta gu oso pozik gaude. Talde-lanketa bat egiten ari gara eta ez da inolako enfrontamendurik egon gure artean.

Sorkunde: Gainera, bi eskualdeetako langile kopurua handitu eta lan baldintzak hobetu dira.

Eta gaur egungo produktuak nondik eskuratzen dituzue?

Nere: Produktu gehienak Ekoal-detik datoz; haragia, berriz, Maite harategitik eta Leitzako Arzallus harategitik. Jogurtak lehenengo bost hilabeteetan Gar-Goik-etik ekarri ditugu (Betelutik), eta hurrengo bost hilabeteetan Balerdikoak izango dira. Ogiari dagokionez, Lezaetako ogia erabiltzen dugu, baina hori ez dagoenean, bost hilabetez Beteluko eta beste bost hilabetez Nerea Arribekoa.

Eguneko prezioa zein da?

Jon: Nafarroako Gobernuak lege ezarria du garraiatuentzat 2 euro ordaintzea bazkari bakoitzeko, eta hilean 35 euro guztira. Beteluko erabiltzaile finkoek, berriz, gehienez 7 euro ordaintzen dute eguneko. Horrek hilean 122,50€ euro inguruko kostua dakar. Jantoki honek jasotzen dituen dirulaguntza guztiak erabiltzaile finkoen arabera kalkulatzen dira, eta laguntzak ikasle horiei

zuzenduak dira. Beraz, ikasle finkoez gain noizbehinka etortzen diren horiek, nahitaez, prezio handiagoa ordaindu behar dute.

Izan al duzue zailtasunik?

Nere: Nik barneko kontraesan bat sentitzen dut. Nafarroako Gobernuak jantokiak kudeatzeko aukera eman digu, baina aldi berean bete-behar eta exigentzia asko bete behar dira. Horretaz gain, guk nahi ditugun hornitzaileak bilatzea zaila dela konturatu naiz. Adibidez, arrain freskoa lortu nahi genuen, eta arraintegi txikiago bat bilatzen saiatu ginen, baina horrelako komertzio txikiek normalean ez dute eskolentzat lan egiten. Arraintegi handiagoekin, berriz, ez genuen lan egin nahi...

Sorkunde: Alderdi ekonomikoa ere zaitasunetako bat izan da. Proiektua martxan jarri dugu, baina ez genekien dena finantzatzeko aukera izango genuenik, eta diru-sarreraren ziurtasunik ere.

Jon: Azkenean, askorentzat sartu garen esparru hau berria da eta ezjakintasuna ere zailtasun bat izan da.

Sorkunde: Eta Nafarroako Gobernuari gure betebeharrak ongi bidaltzea eta lizitazioa betetzea, ere.

Eta babes ekonomikoa?

Jon: Nafarroako Gobernuak bide bat ireki du. Orain, gure proiektua lehenengoa da. Beraz, proiektua ongi garatzen badugu, hemendik hainbat urtetara eskola askok bide bera jarraitzeko aukera izango dute. Hori dela eta, beharrezkoa ikusi genuen bultzada ekonomiko bat izatea.

“Ez zituzten hemengo produktuak erabiltzen”

Nerea Martiarena



Duela bi aste, EH-Bilduk, saio parlamentario bat eskatu zuen proiektu honen aurkezpenera egiteko, eta Jangela Batzordeko kide batzuk joan ginen: Betelutik Nere eta ni,



sare horretan daude, baina momentuz ez dakigu dirulaguntza hori lortuko dugun.

Jon: Baina gure asmoa ez da proiektu honekin dirua lortzea; jantoki duin bat eskaini nahi dugu, kalitatezko janarian eta eskaintzan dirua inbertituz.

“Bi eskualdeetako langile kopurua handitu eta lan baldintzak hobetu dira”

Sorkunde Sotil

eta Leitzatik zinegotzi bat, guraso bat eta langile bat. Nafarroako Parlamentuak osatzen dituzten alderdi guztiak joan ziren (VOX kenduta, beste saio parlamentario batean zegoelako), eta proiektuaren aurkezpena egin genuen. Bertan esan ziguten oso proiektu interesgarria sortu genuela eta lan oso ona egin genuela. Beraz, abenduko aurrekontuak onartzeko garaian, proiektu hau garatzeko beste dirulaguntza bat onartzea nahiko genuke.

Maria: Horretaz gain, Cederna Garalurren bidez beste dirulaguntza bat eskatu genuen, bertako ekoizleekin lan egiteagatik. Horrek bertako merkatarien sareak indartzen laguntzen du.

Nerea: Ekoalde eta Maite harategia

Orain, zein da zuen rola?

Jon: Jangela Batzorde honetan hainbat eragile gaude; batzorde mistoa da, eta umeak ere parte izatea nahi dugu. Hezkuntza aldetik, jangela gauza asko landu daitezkeen gune bat dela uste dugu, eta hori lantzea garrantzitsua da: bizikidetza, elikadura-ohiturak, higieena... Garai batean horrela zen, baina pandemiak dena aldatu zuen, eta garai hartako ohiturak berreskuratu nahi ditugu. Lanketa hori bideratu nahi dugu, gurasoen, nutrizionisten, udalen eta langileen laguntzaren bitartez.

Nerea: Adibidez, gure garaian otorduak egin ondoren hortzak garbitzen genituen, siesta egiten genuen; Jonek esan duen bezala, haurrek jantokian laguntzen zuten,

handienek txikiei laguntzen zieten, mahaiko arduradun bat jarri, txandak egin... Ohiturak berreskuratzea, eta otordua benetan zer den ikustea dira helburuak.

Sorkunde: Umeek bazkalordua beraien unea dela sentitzea nahi dugu, ez kanpoko zerbitzua.

Maria: Gainera, zerbitzua hobetu eta bertako produktuak erabiltzen jarraituko dugu.

Nere: Eta haurrei elikagaiekin irakatsi nahi diegu, elikagai berriak probatzea eta etxeko menuetik kanpo ere aukera desberdinak ezagutzea.

Eta etorkizunean...

Nerea: Etorkizunera begira, orain kontatu dugun guztiarekin memoria bat egin nahi dugu. Batez ere beste eskola bat animatuko balitz zerotik ez hasteko, egun dugun esperientzia elkarbanatzeko. Adibidez, Lekunberriko eskola animatuko balitz, gure lana eredugarri izan daiteke. Horregatik, aurtengo ikasturtean memoria bat egingo dugu.

Jon: Hemen dagoen jende asko boluntarioak dira, eta hori benetan eskertzekoa da. Halako ekimen bat boluntarioen sostengurik gabe sortzea, oso zaila izango litzateke. Hitzaldiak horretarako egin genituen, eta bakoitzak ahal duen neurrian parte hartzen du. Ikusi dugu aldaketa nabarmenak gertatu direla Beteluko eta Leitzako jantokietan, eta oso pozik gaude. Hemen gaude eta pozik gaude; eginiko ahaleginak merezi izan du.



CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
Lekunberri




ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
✉ construccionesganarbe@gmail.com

☎ 616 457 540
☎ 636 827 846



► "IRAKURLE TALDE BERRI BATEKIN GATOZI!"

Eider Goikoetxea, Irene Matxinandiarena eta Leire Lopezegiren artean, dinamika berri bat jarri nahi dute martxan Betelun, irakurle talde bat osatzea hain zuzen.

Irakurtzea gustuko duzu? Eta irakurritako horretaz lagunarekin edo ondokoarekin hitz egitea? Hala baldin bada izanen duzu aurrerantzean horretarako aukera, herrian bertan. Interesa dutenek, Izen ematea irailaren 24ra arte egin ahalko dute, 667 977 129 (Irene) telefono zenbakira deituz.

2025eko urritik hasita, 2026ko ekainera bitarte gauzatu dira hitzorduak. Lehen bilera urriaren 2an, ostegunean, arratsaldeko 18:30ean egingo dute. Animatu zaitezte probatzera, oso esperientzia polita izan liteke eta.



► PALESTINAREN ALDEKO ELKARRETARATZEAK EGIN DITUZTE LEKUNBERRIN ETA ARAITZEN

"Israeli boikot", "Genozidioa stop!" eta "Israelekin harremanak eten" lelopeekin elkarretaratzeak egin zituzten irailaren 5ean Lekunberri eta Araitzen.

Gernika Palestina herri ekimenak deituta egin dituzte elkarretaratzeak Euskal Herri osoan, eta Palestinako herria sufritzen ari den genozidioa salatu dute.

Ekimena 2023ko urrian Euskal Herrian jaio zen Israel eta Palestinaren arteko gatazkan emandako gertaerek sortutako arduratik. "Israelgo estatuak palestinarren aurka genozidio saiakera" salatu du Gernika Palestina herri ekimenak.

Sindikatu, alderdi eta mugimendu sozialek adierazpen bat sinatu dute, nazioarteari Israelekin harreman militarrek eta komertzialak eteteko eskatuz, bakea lortzeko. Irakurri hemen adierazpena: <https://labur.eus/s0k60j4o>

GAINTZARA IRISTEN DEN NA-7512 ERREPIDEA ITXITA EGONGO DA

Irailaren 22tik aurrera, Gaintzara ibilgailuz joateko, Uztegin desbideratu eta Azkueko pistan barrena igo beharko da. Gaintzara iristen den NA-7512 errepidea itxita egongo baita, herri sarreran egingo diren obrak medio.





KAZETARITZA TAILERRA IZAN ZEN ARAXES IKASTETXEAN

Irailaren 26an, Nafarpres Tokiko Prentsaren Eskola Lehiaketako formakuntza izan zen Araxes ikastetxean.

Ane Ubegun, Mailope Zuzendaritza Taldeko kidea, eta Irati Moreno, Mailope aldizkariako kazetari kudeatzailerak gauzatu zuten tailerra.

Horrela, Araxes (Betelu) ikastetxeko 6. mailako ikasleek bertatik bertara ezagutu zuten tokiko hedabideen lan prozesua: elkarrizketa bat sortzea, artikulua idaztea...

Orain, Araxes ikastetxeak, Nafarpresen antolatu duen eta Nafarroako Gobernuak babestu duen Tokiko Prentsaren Eskola Lehiaketaren I. Edizioan parte hartuko du.

Ekimen honekin, eskualdeko kazetaritza eskola eremura hurbildu dute, ikasleen begirada eta jakin-mina sustatuz.



BASAKATUAK ARALARREN: BIZIRIK, MEHATXUEN AURREAN

Basakatua (*Felis silvestris*), etxeko katuaren oso antzekoa da, marra gehiagorekin, hala ere. Tamaina handiagoa du, 540 mm-ko luzera izan dezake. Katu mardula da, hankak motz antza eta buru handia duena. Agerien dituen ezaugarrien artean bibotea dago, trinkoa eta beheraka duelako, eta haragi koloreko muturra. Ilaje nabar-grisaxka du, hanka, lepo eta buruan marrak ageri dituenak.

Aralarreko biztanle diskretu eta enigmatikoenetako bat da. Basoan zehar, harrapakin txikiak bila aritzen da. Izan ere, ekosistemaren orekarako funtsezkoa da. Azken urteotan, mendiko errepideetan izandako istripuek eta, batez ere, etxeko katu basatuen nahasketa genetikoak edo hibridazioak, espeziea arriskuan jarri dute. Hala ere, Aralar Kontserbazio Berreziko Eremu da, eta bertako faunak gero eta etorkizun oparoagoa eskaintzen die animalia misteriosu hauei.

ARTZAINAK OMENTZEKO ESKULTURA BAT ERAMAN DUTE ALLIRA

Xabi Huarte artista oinatiarrak, Ondare Kultur taldearekin elkarlanean, Alliko errepide alboan Aralarreko artzainak omentzen dituen eskultura handi bat eraiki du. Burdinezko pieza berezia, sendoa eta handia da. Bertatik bertara ikusgai eta salgai dago. Interesatuak, eskulturaren alboan dagoen QR kode baten bidez informazio gehiago eskuratu dezakete. Saldu arte bertan egongo da; beraz, oraindik ikusi ez baduzu, hurbildu eta ez galdu aukera.



“Oroitzapen garrantzitsuenak buruan dauzkat, baina batzuetan ahaztu egiten zaizkit”



Ramon Garmendia 100. urtebetetzean.

Ramon Garmendia Intxaustik 100 urte bete berri ditu, 1925eko abuztuaren 31n jaio baitzen, Lazkaoko Intxaurrondo Txiki baserrian. Beteluarren izenean, Aitziber Otamendi eta Nerea Yeregui udal zinegotzien bisita, idatzi polit bat, eta lore sorta ederra jaso zituen.

Garmendia, 1950eko abuztuaren 1ean joan zen Lazkaotik Betelura, “Suizo” izendaturiko nagusi baten esnetegian lan egitera. Lo egiteko gela baten bila ari zela, Baldenea etxean bere emaztea ezagutu zuen, Guadalupe, Beteluarra. Bien artean, familia ederra osatu zuten: lau seme, lau alaba, 19 biloba eta 2 birbilobarekin.

Jaioterriko nortasuna inoiz galdu ez duen arren, beteluar petoa izatea lortu du, herrian aztarna sakona utzita. Garmendiaren ekimenari esker, Gar-Goik esneki enpresa sortu zuen. Gaur egun, bere seme-alabek hartu dute lekukoa.

Nolakoa izan zen zure haurtzaroa?

Gogorra. 1925 urteko abuztuaren 31n jaio nintzen, Lazkaon, Intxaurrondo Txiki etxean. Zortzi neba-arreba ginen, bi neska eta sei mutil, ni seigarrena. Garai hartan bizitza zaila zen, goizean goiz esnatzen ginen, 07:00etako mezara joateko eta lan egiteko.

Nire herria txikia zen, osotara 1.500 bizilagun ginen, eta anaia baten bidez, 1950eko abuztuaren 1ean joan nintzen Lazkaotik Betelura, “Suizo” izendaturiko enpresariaren esnetegira lan egitera.

Asko aldatu al da Betelu iritsi zinenetik?

Bai. Herria eta bizitzeko modua asko aldatu dira. Betelura iritsi nintzeanean bainuetxe bat zegoen, eta gazteen heziketa oso desberdina zen. Gaur egun ez dago bainuetxerik, eta egungo errespetua desberdina da. Gainera, lehen, jendeak Jainkoaren hitzak entzuten zituen, hala zioen: “nik agindutako aginduak bete nahi ez dituenak, ni ez nau maite”. Baina gaur egun, gutxi.

“Herria eta bizitzeko modua asko aldatu dira”

“Orain nire seme-alabek hartu dute lekukoa”

Zenbat urterekin hasi zinen Betelun lan egiten?

25 urterekin hasi nintzen Betelun lan egiten, baina 45 urte nituela, Suizok kiebra egin zuen, eta zorrak ordaindu gabe joan zen. Beraz, zortzi seme-alabekin langabezia



gelditu nintzen. Ondorioz, pixkana-ka-pixkanaka jogurt kutxak saltzen hasi nintzen, Gar-Goik esnekien enpresa sortu arte. Bitartean, taxista lanetan ere aritu nintzen. Orain nire seme-alabek hartu dute lekukoa: Lurdes, Xanti eta Iñigok.

Nola ospatu zenuten zure 100. urtebetetzea?

Abuztuaren azken asteburuan ospatu genuen. Bizikleta estatikoan ibiltzeko ohitura daukat, eta goizean horretan aritu nintzen. Beranduago, Inaxio Azkoaga apaizarekin elkartu ginen, mezara joan eta gero, txistulariak etorri ziren. Idoia,

nire alababitxiak ahots polita du, eta zoragarri abestu zuen. Txistua jo, dantzatu, eta Juan Marik bertso batzuk kantatu zituen. Lasai egon ginen.

Baduzu mezurik gazteentzat?

Orain bezala pentsatuko banu gazte nintzela, dena desberdina izango litzateke. Baina bizitako bizitzaz harro nago, nire pausoak ez nituzke aldatuko. Beraz, bizitakoaz harro egotea eta aurrera jarraitzea dira nire bi mezuak. Eta noski, gaztetan festaz gozatzea, nik ere parranda onak bota nituen eta. Batez ere, Lazkaoko San Prudentzio egunean!



IORTIA CLINICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologoa
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpai-
netan
Mikroblading bekainetan

●● Abuztuaren 6an bete zituen 100 urte Atalluko Jesusa Intxaurrondok.

Abuztuan 100 urte bete zituen Atalluko Jesusa Intxaurrondok



Jesusa Intxaurrondo bere 100. urtebetetze egunean.

1925ean Atalluko Ugaldea etxean jaioa, abuztuaren 6an bete zituen 100 urte aspaldiko urteetan Urduzibitarte etxean bizi den Jesusa Intxaurrondok.

Araiztarren izenean udal ordezkarien bisita eta lore sorta ederra jaso zituen etxean pasa den irailaren 6an. Osasunez ongi eta buruz argi egoteko giltzarri omen ditu apetitua ez galtzea eta otordueta baso txiki bat ardo edatea.

K13TXER
Taberna • Jatetxea • Brasa
948 50 43 52
kotxera13.com
Caserio Benta Zaharra,
Mugiro (Navarra)

Antzonia
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antzonia.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara

**BACALAO
ELKANO
S.L.**
Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

●● Araizko Kablearen Eguna, Intzatic, Gaintzara.

Araizko Kablearen Eguna irailaren 20an ospatu zuten



Aurreko mendeko 20ko eta 70eko hamarkaden artean, Araizko Malloan belarra nola egiten zen eta kable bidez nola garraiatzen zen azaltzen da Araizko Kablearen Egunean. Horrela, ekitaldiaren bidez, garai hartako langileak ere omentzen dira.

Araizko Zaporeek eta Araizko Udalak 2017an antolatu zuten lehen aldiz, eta ordutik ia urtero egin izan da. Aurten, irailaren 20an, larunbatez ospatu zen. Goizean goiz, Intzatic abiatu ziren, eta ondoren Zezelainen, Gaintzan, Malloko Kablearen Behatokia dagoen tokian, iraganekeo tradizioak berpiztu zituzten: belarra moztu, bildu, jaso, eraman eta kabletik bota. Ibarreko herritarren parte-hartzea aipagarria izan zen; bertan izan ziren etxeko abeslariak, musikariak eta bertsolariak.

Palestinan gertatzen ari den geno-

zidioa salatzeke eta ez ahazteko, bandera beltz, zuri, berde eta gorria zintzilikatu zuten lastozko fardoetan. Egitasmoa amaitu ostean, 70 lagun inguru elkartu ziren bazkari herrikoian, eta gaztaren pisua asmatzeko apustua egin zuten. 2,750 kilo pisatu zuen, eta Uztegiko herritar bat izan zen galdera bitxiaren asmatzailea.

Amaitzeko, Araizko Zaporeek eta Araizko Udalak eskerrak eman nahi dizkiete larunbateko Araizko Kablearen Egunean modu batean edo bestean parte hartu zuten boluntario eta ikusle guztiei.

Madame Birrotsen kontzertu goxoa Intzako Araitz-Errotaren terrazan

Irailaren 12an Madame Birrots taldeak kontzertu atsegina eskaini zuen Intzako Araitz-Errota elkar-teraren terrazan, Araitz eta Beteluko Berdintasun Mahaia antolatua. Taldeak badu puntu berezi bat, rock formazio baten ohiko baxua cello batez ordezkatzen dute, emanaldiei ukitu berezi eta originala emanaz. Taldearen abesti propioekin batera, MICE eta Anariren bertsioak ere jo zituzten, entzuleen arreta eta estimua piztuz.



Argazkia: Eneritz Urkola.



Lekunberriko Palestinaren aldeko elkarretaratzea.

Palestinaren aldeko elkarretaratzeak egin dituzte Lekunberrin eta Araitzen

"Israeli boikot", "Genozidioa stop!" eta "Israelekin harremanak eten" lelopeekin elkarretaratzeak egin zituzten irailaren 5ean Lekunberri eta Araitzen. Gernika Palestina herri ekimenak deituta egin dituzte elkarretatzeok Euskal Herri osoan, eta Palestinako herria sufritzen ari den genozidioa salatu dute.



Araitzko Palestinaren aldeko elkarretaratzea.
Argazkia: Jose Manuel Zubillaga.



Lenbailen musika taldea.
Argazkia: Unai Lizarraga.

Irailaren 6an ospatu zuten Matarock jaialdia

Gogotsu aritu da Mataderoako antolaketa taldea lehen edizio honetan. *Los Tritus*, *Lenbailen*, *Mendeku*, *Iruñerria*, *Amaiur 22* eta *Dj Aron* izan ziren bertan jo zuten artistak. Sarrera mugagabea izan zuen aurten jaialdiak, eta Ibarberri ikastetxeko frontoian ospatu zen. Bazkaria eta Mus Txapelketa egin ostean, 20:30etik aurrera zabaldu zituzten ateak, eta ehunka lagun elkartu ziren eszenatoki inguruan.

Kaña Fest III egunean giro paregabea izan zen

Abuztua joan da eta aurtengo ikasturteari ekiteko prest dira Printza guneko autogestionatuko lagunak.

Irailaren 13an Printzan ospatutako Kaña Fest III. arrakastatsua izan zen. Egitarau erakargarria presatatu zuten Printzako antolatzaileek; *Txitxirioak* (etxeko musikariak), *Impulso Canibal*, *Severance*, *Elbereth*, *Ajariguan*...

Giro ezin hobea bermatu zen, eta heldu den urtean ere horrelako egun bat antolatzea espero dute.



Kaña Fest III eguna.



Parroko berriaren aurkezpeneko une bat.

Inaxio Azkoaga gure eskualdeko parrokoa Donostiara itzuli da

Inaxio Azkoagak 25 urte igaro ditu Lekunberrin. Orain, Donostiara, bere jaioterrira itzultzea erabaki du, eta irailaren 28an eman zituen bere azken mezak gure eskualdean. Bere ordeza, Patxi Izko izanen da parroko berria, dagoeneko zeuden Jesús Sotil eta Santiago Garisoain batera.

Azkoagak Aralar irratian izandako elkarrizketa ikusi eta entzun nahi baduzu, sar zaitez <https://labur.eus/lbt3s3mm> web orrialdean.

JAIK 2025

ATALLU



Argazkiak: Izan Zubillaga.



IRIBAS



Argazkiak: Irune Juanena.



INTZA



Argazkiak: Ainhoa Parareda.





Hezkuntzaren adarrak: antzerkia

ARRUITZ



Argazkia: Bernar Azpiroz.

ETXARRI



Argazkiak: Imanol Jaka.



Ziur nago "hezkuntza" hitza entzutean burura datorkizun lehenbiziko kontzeptua hezkuntza formalarekin erlazionaturiko zerbait dela: izan eskola, irakaslea edo, agian, haurtzaroa.

Baina ba al dago "hezkuntza" beste inon? Bestelako eszenatokiak?

Eszenatokiak aipatu eta haratz! A zer harietako abilezia nireal!

Beste behin gure uda Hego-Amerikan igaro dut eta bertan zonalde edo egoera zaurgarrian bizi diren umeekin lan egiten duen pailazo bikote bat ezagutzeko aukera izan dut. Oholtzara eramaten dituzten gaien bitartez antzerkiaren alderdi "soziala" lantzen dute: sormenetik, heziketatik eta barreetatik diskriminazioa salatzen dute, berdintasuna eta inklusioa sustatzen dute, bai eta lidergo positiboa eta ahalduntzea bultzatu ere.

Haiekin hizketan, esaten zidaten antzerki komunitarioa badela modu bat kultura iristen ez den, eta gobernuak iristen ez den, toki horietara heltzeko.

Hezkuntza uler dezakegu modu itxian eta hezkuntza formalean zentratu, baina batzuetan ahazten zaigu hamaika errealitate daudela, hamaika egoera eta dimentsio eta hezkuntza hitzak bere gain dituela ez dakit zenbat zertzelada.

Hezkuntza badela eskolak ematen duena, baina baita ere eragile sozialek eta, kasu honetan, antzerkiak egiten duena; edo elkarte txikien esfortzuari esker komunitateak jasotzen duena.



“S.D. Logroñes futbol taldearekin biziko dudan denboraldiaz gozatu nahi dut”



Jon Ander Unanua Iraola.
Argazkiak: Jon Ander Unanua.

Jon Ander Unanua Iraola Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientzietan graduatu zen Leonen. Goi-errendimenduko masterra ikasten ari zela entrenatzaile titulu guztiak lortu zituen. Aurten, S.D. Logroñeseko lehenengo futbol taldearen bigarren entrenatzaile eta prestatzaile fisiko da. Iraganean, Izarra futbol taldeko bitarteko teknikaria ere izan zen, eta bederatzi partidatan, zortzi irabazi eta bat berdindu zuten.

Txikitatik datorkizu kirol zaletasuna?

Bai. Ikastolan gehien gustatzen zitzaidan ikasgaia heziketa fisikoa zen. Betidanik gustatu zait mundu hori. Futbola gustuko dut, baina horretaz gain; indarra, korrika eta beste kirol batzuk ere gogoko ditut. Beti Kozkorren 10 urterekin hasi nintzen jokatzeko. Erregionalera iritsi

nintzenean jokatzeari utzi eta Beti Kozkorreko entrenatzaile bilakatu nintzen.

Nolakoa izan da zure ibilbidea orain arte?

Futbol asko neukan buruan eta nahiko gutxi hanketan. 14 urterekin gaztetxoak entrenatzen hasi nintzen. Geroago, kirol zientziak ikasten ari

nintzen bitartean, hiru taldetako entrenatzaile izan nintzen. Gradua bukatu nuenean, Beti Kozkorreko lehenengo taldera itzuli nintzen, bai metodologian eta bigarren entrenatzaile lanetan aritzera. Ondoren, Beti Kozkorretik Izarrara joan nintzen, handik Mutilverara, eta orain, Logroñes taldearekin nago. Egun, 31 urte ditut eta ia 15 urte daramatzat entrenatzaile lanetan.

“Ikastolan gehien gustatzen zitzaidan ikasgaia heziketa fisikoa zen”

“14 urterekin gaztetxoak entrenatzen hasi nintzen”

Zer lortu duzu Mutilverako esperimentziaz?

Mutilveran batez ere metodologia landu nuen. Nire ideiak adierazteko, azaltzeko eta praktikan jartzeko aukera ederra izan zen. Metodologiaz gain, lan handia egin nuen jokalaria gazteen entrenamendu pertsonalak landuz. Azkenean gaitasun handia edo talentua zuten jokalaria entrenatzen genituen, eta horien “mentore” izan nintzen.

Gainera, kirol arloan, kluba birformatu nuen; taldeen funtzionamendua, entrenamendu-sistema eta atal fisikoa landu nituen. Ardura handiko lana izan zen. Bi-hiru urte horietan asko ikasi nuen.



Ezkerretara Jon Ander txikia zela,
Beti Kozkorren.



Jon Ander Lekunberriko zelaian kopa batekin.

Eta gaur egun?

Orain Logroñesen bigarren entrenatzaile eta prestatzaile fisikoa naiz. Arlo fisikoa aztertzen dut; jokalarien kargak ikusi, egoera fisikoaren datuak landu, bakoitzaren beharrak aztertu... Eta gainera, bigarren entrenatzaile ere banaiz. Laguntza tekniko eskaintzen dut; ariketak, jokuak, hitzaldiak, aurkariaren azterketak... Laburbilduz, lehenengo entrenatzaileari laguntzen diot.

Zer da gehien gustatzen zaizuna entrenatzaile eta prestatzaile fisiko izatek?

Batez ere jokalariei laguntzea gustatzen zait. Horrek pozten nau, eta gutxinaka nola hobetzen duten ikustea baloraezina da. Hobekuntza horren zatitxo baten atal sentitzen naiz.

"Orain Logroñesen bigarren entrenatzaile eta prestatzaile fisikoa naiz"

"Batzueta futbolaren mundu inguruan pasio handia sortzen da"

Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Batzuetan futbolaren mundu inguruan pasio handia sortzen da, zirrara asko nahasten dira. Ondorioz, jokalariek eta entrenatzaileok une jakin batzuetan presio handia jasan behar dugu, eta hori kudeatzea ez da batere erraza. Uneoro joko baten ikuspegitik lanketa hori egitea zaila da. Eta batzuetan, nahiz eta gogor entrenatu eta ongi jokatu, ez da nahikoa, eta partidek ez dituzte beti emaitza onak izaten. Baina

jokoa horrela da. Momentu horiek kudeatzean eta presio horri aurre egitean ikasten da.

Nolakoa izango da datorren denboraldia?

Interesgarria izango da. Logroñes futbol taldearen maila handia da, eta erronka polita izango da. Aurreko urtean, jokalariek denboraldi polita egin zuten eta bigarren postua lortu zuten. Baina, talde jokoetan, erronka partidaz partida izaten da. Nire ikuspuntutik, gauzak ongi egitea eta hainbeste alderdi kudeatzea dira erronka nagusiak. Azkenean, futboleko beti hobetu nahi dugu. Aurtengo denboraldia erronka polita izango da, eta prozesuaz gozatu eta jokalariei lagundu nahi diet. Etorkizun urrun batean zer gertatuko den eta noraino iritsiko naizen batek dakit, baina egungo zirrarekin jarraitzea espero dut.



Unanua jokaldia aztertzen eta azaltzen.



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



ekin
rotulación

948 85 32 79

SAN MIGUEL

Taberna-Jatetxea

Arribe

948 51 31 34

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri



OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK

948604884

TAXILON



661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitx

Lontxo Otamendi Artola

Arrakastatsua izan zen Aresoko XVI. Mendi Martxa

Parte hartzaile kopuru handia bildu zuen irailaren 7an Aresoko mendi martxak, 488 parte hartzaileekin.

21 kilometroko ibilbideaz gain, 12 kilometroko itzulia ere antolatu zuen Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateak. Ondorioz, gaztetxo eta familia ugari parte hartu zuten. Ibilbide segurua sortzeko, herritarren auzolana ezinbestekoa izan zen: 40 boluntario aritu ziren lanean.



Aresoko XVI. Mendi Martxa.
Argazkia: Eneritz Iraola.



Beigorriko Txirrindularientzako
Zerbitzu Zentroaren inaugurazioa.
Argazkiak: Lekunberriko Udal.

Irailaren 19an egun berezia ospatu zuten Lekunberrin

Bi proiektu berri inauguratu zituzten. Lehenengo, herriko bidegorria Plazaola kiroldegiarekin, Mugiroko Gabari Gune Irekiarekin eta Plazaolako Bide Berdearekin lotzen duen ibilbidea inauguratu zuten. Ondoren, Beigorriko Txirrindularientzako Zerbitzu Zentroa inauguratu zuten. Gune berri horrek bizikleta-zaleentzako hainbat zerbitzu eskainiko ditu: konponketa, garbiketa eta biltegitratzea. Arratsaldean, berriz, Bizikletaren Festa izan zuten, herriko kaleak giro ederrarekin eta mugikortasun jasangarriarekin betez.



Bizikletaren Festa Lekunberrin.

Panticosara mendi irteera antolatu zuen Ttutturre Kirol Elkartek

Irailaren 12tik 14ra, Ttutturre Kirol Elkarteko mendizaleak Panticosara (Pirinio Aragoesera) joan ziren. Ostiral arratsaldean irten ziren Lekunberritik. Larunbatean bi ibilbidetan banatu ziren; batzuk Tebarray mendira joan ziren (20 km), eta besteak, Panticosatik Sallent de Gallegora eman zuten itzulia (15 km).

Indarrak hartu eta hurrengo egunean 4 tontor igo zituzten, horien artean: Blanca malkorra, Roya kanala, Baguer punta... Ondoren, bazkaldu eta arratsalderako Lekunberrira bueltatu ziren.

"Nire lehen aldia izan zen eta oso giro atsegina sentitu nuen. Jende berria ezagutzeko aukera ona izan zen. Gainera, ikusitako leku berriak ederrak ziren. Gazteak animatu nahi ditut, batez ere hilabetero egiten den azken igandeko irtenaldietara. Izan ere, behar direlako eta gainera, leku berriak bisitatu eta ongi pasatzen delako" Adierazi du Ane Rodriguezek, Ttutturreko mendizale gazteak.

Azkenik, Ttutturreko kirol elkarteko kide guztien partez, mezu hau partekatu dute:

"Eskerrak eman nahi dizkiegu Idoia Igoa lehendakariari eta Pakitto Sagastibeltza lehendakariordeari, bai irtenaldi honen antolakuntzarengatik eta baita 8 urte hauetan egindako guztiarengatik, azaroan haien lana amaituko baitute".



Ttutturre Kirol Elkarteen talde irudia Pirinioetan.
Argazkiak: Idoia Igoa.



Mendi bat inguratzen.



Ur-jauzi baten aurrean.



Ttutturreko mendizaleak palestinar banderarekin.

Haserre erdi bidean.

Gaizki sentitu izan naiz askotan hizketaldietan haserreak ateratzen zirenean norbaitekiko, halako deskarga batzuk egiten zituenean norbaitek, gustoko ez duenaz esanez, egin dion kalteaz... Gainera sentsazioa edukita hor geldituko dela iritzi hori, indar hori. Uste dut aurreko egunean ulertu nuela zergatik iruditzen zaidan zerbait ez dagoela ongi jokaera horretan.

Alde batetik, egoki iruditzen ez zaigun hori ez badiogu pertsonari jakinarazten, batez ere berarekin harremanetan jarraitu behar badugu, persona horrek ez du jakingo zer pasatzen zaigun, agian ez da ohartzen ere bere ekintzaren eraginaz... Kasu horretan, haserreak ematen digun indarra bide erdian geratu denaren sentsazioa dut, ez duela bere funtzioa bete.

Bestalde, haserretzen den pertsonari barne ilusio bat gelditzen zaionaren sentsazioa gelditzen zait, haserre lagun artean plazaratzean, pertsonari esan dionaren sentsazioa gera ahal zaio, haserreak bere lana egin balu bezala, baina ez du egin, ondorioz zerbait du barruan ez ongi kokatua, beste pertsonarekiko sekretu bat, energia mozketatua.

Beldurgarria iruditzen zait betidanik nola askotan gure inguruan haserreak garatzen diren talde txikitan, talde itxitan, baino gero ez diren iristen behar duten lekuetara, horrek suposatzen duen errealitate faltsuarekin. Zerbait pentsatzen badugu, zergatik lotsatzen gara esateko inplikatur dagoen pertsonaren aurrean? Aurre egiteari beldurra? Maitatuak ez izateari?

Ez zait iruditzen beti aritu behar garenik gustatzen zaiguna esaten, baina bai garrantzizkoa iruditzen zaidala, batez ere garatu nahi ditugun harremanetan, baina baita entzuteko prest dauden pertsonetan ere, gustatzen ez zaizkigun gauzen inguruan hitz egiteaz, horrek harremana osatuko duelako, garbitu, agian sendotu, egokitu... ez dadila haserre erdi bidean gelditu ba!





Oinarritzko emozioak

Bere garaian Mailopez idatzi nituen lehen artikuluetatik oinarritzko emozioei buruzkoa izan zen. Nire lanean eta, zalantzarik gabe, bizitzan oro har emozioak ezinbestekoak dira. Horiek ezagutzeak eta identifikatzeak asko errazten du haien kudeaketa, eta, beraz, gure ongizatea oro har.

Beraz, errepaso beharrezkoa iruditut zait emozio horiek zein diren eta zein funtzio dituzten gogoratzea.

► **Beldurra:** garunak zure osotasun fisiko edo emozionale-rako arriskutsua izan daitekeen zerbait identifikatzen duenean aktibatzen da.

► **Nazka:** fisikoki edo sozialki pozoitzea saihesten du. Zerbaiten edo norbaiten aurrean erreakzionatzen badu, gorputzak erreakzio hori eragin duena gurtzat kaltegarria dela interpretatu behar dugu.

► **Haserrea:** zure burmuinak besteei mugak jartzeko duen modua da, egin duena ez zaizula gustatu edo kaltegarria izan dela jakinarazi nahi dionean aktibatzen da.

► **Poza:** energia-txute bat bezalakoa da, motibatuago, aktiboago eta beste batzuekin harremanetan jartzeko irekiago egoten laguntzen diguna (ez dugu ahaztu behar animalia sozialak garela eta harremanak behar ditugula).

► **Tristura:** gogoetara, etapa-trantsiziora eta laguntza eskatzeko modu batera bultzatzen duen emozioa da.



Albaitaritza

baserritarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Iruztzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



Funtzioak argi izanda, garrantzitsua iruditzen zaidan beste xehetasun bat da emozioak gorputzean nabaritzen dituzun sentazioen bidez identifika ditzakezula, irakurtzen duzun bezala! Beraz, ariketa hau egitera gonbidatzen zaitut: pentsa ezazu lehen aipatutako emozio bakoitza eragingo dizun zerbaitetan, jar zaitez egoera horretan eta imajina ezazu gorputzean sentazioaren bat nabaritu arte.

Ez fidatu, ariketa hau dirudiena baino zailagoa da. Gorputza da ahortzi handia, gezurra badirudi ere; izan ere, askotan beranduegi denean barrikartzen jartzen diogu arreta: lesio bat, zerbikalak kargatuta edo antsietate-erasoak. Egokiena arreta handiagoa jartzen ikastea litzateke, emozioak esaten digunari erantzun ahal izateko eta planteatzen digun helburua betetzeko, luzera nahigaberen bat eta lesioren bat izan dezagun.

tanatorios IRACHE Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA

• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK ARTZAI GAZTAK

Granja Martikonea, GAITZA, Nafarroa
Jabi, 649 472 057 + Josune, 660 511 097
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL



948 507 628
lekunbertaberna@gmail.com
C/ Aralar, 19 baxo
31870 Lekunberri
@Lekunberri Taberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaldea 19,
Lekunberri



www.martillotxiki.com
679 938 016

●● Dimitrina Georgieva Stoykova (Bulgaria-Lekunberri)

“Betidanik asko gustatu izan zait etxeko gozogintza”



Dimitrina Georgieva etxean egindako tarta batekin.
Argazkia: Dimitrina Georgieva.

Dimitrina Georgieva Stoykova, 2003ko apirilaren 6an iritsi zen Bulgariatik Lekunberrira. Emakume sortzailea da, lau urteko jostun-ikasketak egin zituen, eta Teknika eta Teknologia Pedagogiako unibertsitatean graduatu zen. Azken urteotan gozogintzan murgildu da. Postre gozo eta gaziak eskuz sortu eta etxeko mandatuak egiten ditu.

Dimitrinaren espezialitatea Bulgariako postreak dira, baina Euskal Herriko gozoki tipikoak ere sortzen ditu, eta bezero bakoitzaren eskakizunetara egokitzen da. Gainera, glutenik gabeko eta azukre gutxiko errezetak ere prestatzen ditu, zapore goxoko postre arinak eta osasungarriak sortuz.

Nola hasi zinen gozogintzan?

Gozogintza betidanik gustatu zait, amak piztu zidan postreak sortzeko zailtasuna, berari asko gustatzen zitzaion. Bulgarian, azken hiru udetan, ikastaro bat egin nuen ezagutzak freskatzeko,

eta Lekunberrira itzuli nintzenean postre txikiak egiten hasi nintzen, mandatu errazak.

Nolako gozoak sortzen dituzu?

Denetarik. Adibidez, Baklava, turkiar

jatorriko postrea baina Bulgarian ere oso ohikoa dena. Kozunak ere oso tipikoa da, txirikorda baten antzekoa. Postre gaziak ere sukaldatzen ditut, aldatzea gustatzen zait. Kalitate oneneko produktuak erabil-

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

German Lasarte HARATEGIA
Arar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

urrutia enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

tzen saiatzen naiz, hala nola: Dulci Light, kakao purua, glutenik gabeko oloa eta arrunta, arroz-irina, arto-irina... Produktu onak erabiltzea gus-tatzen zait, eta eskaerak prestatzeko, garaiz abisatzea nahiago dut; tarta bat sortzeko hiru egun inguru behar izaten ditut eta.

“Postre gaziak ere sukaldatzen ditut”

“Kalitate oneneko produktuak erabiltzen saiatzen naiz”

Esaten dute nire postreak zapore ona dutela, mamitsuak eta leunak dire-la. Askotan etxeko marmelada eta produktu naturalak erabiltzen ditut. Zeliakoentzako glutenik gabeko au-



Dimitrinak egindako oreozko tarta.

kerak ere eskaintzen ditut. Senarrak beti animatzen nau gozogintza txiki bat irekitzera. Beti esaten dit egiten ditudan postreak oso aberasgarriak direla eta azukre kantitatea egokia dela. Egia esan, errezetetan azukre gutxiago erabiltzen saiatzen naiz. Probatzea gustatzen zait, denbora-ekin gero eta hobeto atera daitezen.

Zein da zure espezialitatea?

Niretzat, Kozunak. Erraza dirudi, bai-na zaila da, egun oso bat behar da gutxienez, hiru aldiz nahastu behar delako. Gero, esaten den bezala, “har-riz” ireki behar da. Prozesu neketsua da.

Masa amarekin prestatutako jakiak ere gustuko ditut. Horrela, produktu gaziak egiten ditut.

Zer joera ikusten dituzu gaur egun gozoen munduan?

Azukredun postreak gero eta gehia-go kontsumitzen direla uste dut, hiri handietan batez ere. Herri txikietan agian ez dira hainbeste eskari egiten, baina kontsumoa bai. Modan daude postre txikiak eta arinak direnak, gehiegi betetzen ez dutenak, asko-tan txokolatezkoak.

Zer da gozogintzatik gehien gusta-tzen zaizuna?

Prozesutik, azken zatia: apaintzea. Hasieran bizkotxoak prestatzen ditut, egun bat edo bi “atseden hartzen” uzten ditut, gero ongi moldatzeko. Postrea apaintzeko azken une horrek, alderdi sortzaileak, liluratzen nau.



Dimitrina Georgieva postreak egiteko produktuekin.

Nola garatu nahi duzu zure proiektua?

Etorkizunean gozotegi txiki bat ireki nahiko nuke, baina pixkanaka. Lehe-nik gauzek nola garatzen diren eta proiektua nola hazten den ikusi nahi dut. Oraingoz, dena etxean egiten dut, enkarguz bakarrik.

Eskaerak egiteko, interesa dutenek 676 535 099 zenbakira deitu edo mezu bat bidal dezakete, eta nik poz-pozik erantzungo diet.

“Azukredun postreak gero eta gehiago kontsumitzen direla uste dut”

“Postrea apaintzeko azken une horrek, alderdi sortzaileak, liluratzen nau”



TALLERES GOÑI
TAILERRAK



TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA



- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN





680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM



Komikia: Iker Arretxea Arauzo (Lekunberri).

KONTU TXIKIAK

“Irakurle talde berri batekin gatoz!”

Eider Goikoetxea, Irene Matxinandiarena eta Leire Lopetegiren artean, dinamika berri bat jarri nahi dute martxan Betelun, irakurle talde bat osatzea hain zuzen.

Irakurtzea gustuko duzu? Eta irakurritako horretaz lagunarekin edo ondokoarekin hitz egitea? Hala baldin bada izanen duzu aurretzean horretarako aukera, herrian bertan. Interesa dutenek, lizenziatuta irailaren 24ra arte egin ahalko dute, 667 977 129 (Irene) telefono zenbakira deituz.

2025eko urritik hasita, 2026ko ekainera bitarte gauzatuko dira hitzorduak. Lehen bilerari urriaren 2an, ostegunean, arratsaldeko 18:30ean egingo dute. Animatu zaitezte probatzera, oso esperientzia polita izan liteke eta.

Joskintza tailerra eskainiko dute urriaren 6tik aurrera Araitzen

Euskaraz Bizi Taldeak antolatuta, joskintza tailerra eskainiko dute herrian. Eskuz zein makinaz arropak jos-ten, moldaketak egiten, etxerako oihalak egokitzen edo-ta bestelako joste-lanetan trebatu nahi dutenek orratza mugiarazteko aukera izanen dute. Urriaren 6an abiatuko dituzte saioak eta astelehenetan bilduko dira, 17:30etatik 19:30era.

Araizko Udaletxe azpiko lokalean bilduko dira.

- Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko idatzi larbeleareuskaraz@iparmank.eus helbide elektronikora.
- Prezioa: 50€

Lekunberriko Artxueta harategiak lan egiteko pertsona bat behar du

Interesatuak curriculum harategira eraman beharko dute. Informazio gehiagorako deitu 948604567 telefono zenbakira.

Tailaketa ikastaroa eskainiko dute Lekunberrin

Eskuz tailaketa-lanak egiten ikasi nahi dutenek aukera ederra izanen dute. Urriaren 18an abiatuko dituzte saioak eta larunbatetan elkartuko dira, 09:00etatik 11:00etara. Lekunberriko Udaletxean bilduko dira 2025eko urritik 2026ko maiatzera.

Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko deitu 621 15 04 55 zenbakira.

- Prezioa: 100€

Kuadrilen arteko desafioa jokatu dute urriaren 8an Lekunberrin

Kuadrilen arteko desafioa antolatu dute Lekunberriko Udalak eta Lekunberri-Larraungo Kultur Sailak, Beñat Barberena kirol teknikariaren laguntzarekin. Urriaren 8an jokatu dute desafioa, arratsaldeko 17:00etan.

Herriko kuadrilak sei proba ezberdinetan lehiatu beharko dira: txingak, zaku lasterketa, lasto jaurtiketa, korrika, lokotxak eta ingude proba. Partaide bakoitzak 9 kideko talde mistoa osatu beharko du.

- Kuadrilek urriaren 6ra arte dute izena emateko aukera 633 14 95 72 edo 606 88 57 96 telefono zenbakietara deituz.
- Saria: afaria Lekunberriko edozein tabernan.



Arnas[etik], bideosormen lehiaketaren IV. edizioa, martxan da

Arnasetik bideosormen lehiaketa 10-16 urteko gazteei (LH5-DBH4) zuzendua dago, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta UEMAK sustatuta, gazteen hizkuntza ohiturei buruz hausnartzeko.

Guztira 2.000 € banatuko dira 4 kategorietan, IrisarriLand, Durangoko Azoka, Goazen!/Irabazi arte! merchandising edo ikas bidaletan erabiltzeko.

Lanak euskaraz eta gehienez 2 minutukoak izan behar dira, eta online aurkeztu behar dira **www.arnasagara.eus** webgunean (irailaren 15etik urriaren 31era). Sari banaketa azaroaren 27an egingo da.

Informazio gehiago nahi baduzu, sar zaitez <https://labur.eus/px3tsds6> web orrialdean.

AGENDA

URRIA

4- Ibarberri Eskolako Festa. Lekunberri.
10:30 Nafarroako Foru Komunitate Torneoa: emakumezkoen pilota. Esku-pilota goxua, goma paleta eta larruzko paleta partiduak. Jaian Jai Frontoia.

5- 10:00-14:00 **Nafar Sagardoaren Eguna:** Nafarroako sagardogileek ekoiztutako sagardoaren dastaketa,

kirikoketa & Jardunaldi mikologikoa: Perretxiko eta onddo mota ezberdinen erakusketa, onddoz egindako pintxoak. Lekunberri, Herriko Plaza.

8-12- Lekunberriko Festak.

10- 19:00 "Feministok Palestinarekin". Euskal Herriko Mugimendu Feministak eta Tximutxek antolatua. Arribeko Surtidoreko aparkalekuan.

18- 17:00 Euskaraz bai: Udazkeneko festa. Aldatz.

26- Ttuturreren mendi irteera: Erroimendi - Orhi (2.019 m.) - Larrañe.

31- Gau Beltza. Lekunberri.

*Lekunberriko festen egitaraua kontrazalean.

LEKUNBERRIKO FESTAK 2025

Urriak 8, asteazkena TXUPINAZOA

- 12:00** Jubilatuen Meza – San Joan Bataiatzailearen Eliza
14:00 Jubilatuen Bazkaria – Ayestaran Hotela.
Ondoren, dantzaldia
17:00 Koadrillen arteko desafioa (herri kirolak) – Izen-emateak urriaren 6ra arte Udaletxea (Euria bada, Jaian Jai Frontoian)
18:00 2025ko Festetako kartel lehiaketaren sari-ematea – Udaletxeko Batzar Aretoa
18:50 Festetara deia Txalapartarekin
19:00 Txupinazoa – Ondoren, otamen herrikoia, Herriko Plaza eta Iraunkorrek Txaranga kalez kale
20:30 Zezensuzkoa – Alde Zaharra
22:00 Gazte Afaia – Txartelak salgai Mitxausean urriaren 3ra arte (16€) Herriko Plaza
00:30 Eztitan – Herriko Plaza

Urriak 9, osteguna HAURREN EGUNA

- 09:30** Goizeko soinuak – Txistulari taldeak emana
11:00 2024an jaiotakoei ongi etorria – Udaletxeko Batzar Aretoa
12:00 Txupinazo Txikia – Aralar Musika Eskola eta Martillotxiki Batukadak girotua
12:00 -14:00 / 16:00 - 18:00 Puzgarriak eta haurrentzako jolasak – Plazaola Kiroldedia Txu-txu trenaren egun osoan zehar
17:00 Pilota partiduak – Emakumezkoak palan eta gizonezkoak esku-pilotan, Jaian Jai Frontoia
17:00 Poker Txapelketa – Lekunberri Taberna
18:00 Karaokea – Gizarte Etxea
18:00 AtsaldeON! + Txapela jaurtiketa lehiaketa – Ainhua tabernaren ondoan
19:00 Xaibor Diskofesta – Haurrentzako dantza saioa eta ondoren, helduentzako, Udaletxea (Euria bada, Herriko Plaza)
19:00 Aralar Musika Eskolako trikitilariak – Kalez kale
21:00 Zezensuzkoa – Aralar Kalea
00:00 Festa tabernetan – Albi: Caipirinha (Gizarte Etxea) | Izar berri: Merengue & Bachata | Kantina: DJ Oixani | Lekuonberri: DJ Zzeiko

Urriak 10, ostirala HERRI BAZKARIA

- 09:30** Goizeko soinua – Txistulari taldeak emana
11:00 Haurren Krosa – Izen ematea bertan 10:30ean, Alde Zaharra
12:00 Iraunkorrek Txaranga kalez kale – Aralar Kaletik irtenda
13:00 Tortilla Txapelketa – Euskalduna Tabernaren inguruan
14:30 Herri Bazkaria – Txartelak salgai Mitxausean urriaren 3ra arte (15€ helduek, 10€ haurrek)
Bazkalostean, txaranga eta bingo, Herriko Plaza
17:00 Mus Txapelketa – Gizarte Etxea
18:30 Puro Relajoren emanaldia – Herriko Plaza
20:00 Niarawa Batukada – Alde Zaharretik irtenda
21:00 Zezensuzkoa – Aralar Kalea
00:00 Oxabi + DJ Jaikide – Herriko Plaza

Urriak 11, larunbata AJOARRIERO TXAPELKETA

- 09:30** Goizeko soinuak – Txistulari taldeak emana
10:00 Pilota partiduak – Pilota eskolako txikiak, Jaian Jai Frontoia
11:30 Erraldoi eta Kilikiak – Udaletxetik irtenda
12:00 Haurrentzako puzgarriak – Alde Zaharra (Euria bada, Kiroldegian)
12:30 Nafarroako 1. Mailako Aizkora Txapelketaren Kanporaketa – Udaletxea (Euria bada, Herriko Plaza)
13:00 Kantuz – Herriko Plazatik irtenda
14:30 Ajoarriero Txapelketa – Herriko Plaza
15:30 4x4 Trial Erakustaldia – Poligonoa
16:00 - 18:00 Gazteentzako laser-ball jolasak (12-16 urte bitarte) – Beigorri Parkea
18:00 Elektrotxufila Elektrotxaranga – Aralar Kaletik irtenda
18:00 Hodei Magoaren ikuskizuna: Tutti-magia – Herriko Plaza
19:30 Bertso-saioa – Oihana Igwaran, Sustrai Colina, Joanes Illarregi, Onintza Enbeita, Herriko Plaza
21:00 Zezensuzkoa – Aralar Kalea
00:00 DJ Bambola + DJ Oixani – Herriko Plaza

Urriak 12, igandea PILAR EGUNA

- 10:00** Goizeko soinua – Txistulari taldeak emana
11:00 Meza Nagusia – San Joan Bataiatzailearen Eliza
11:00 Erraldoi eta Kilikiak – Alde Zaharretik irtenda
12:30 Agurra eta Bandera dantza – Ondoren, erraldoien dantza, Udaletxea
13:00 Euskal dantzen erakustaldia – Tirikitrauki Dantza Taldearekin, Udaletxea
16:30 - 19:00 Beigorri Parkea eta rokodromoa gazteentzat (6 urtetik aurrera) – Beigorri & Plazaldea Kiroldedia
17:00 Pilota partiduak: profesionalak – Jaian Jai Frontoia
19:00 Joselu Anaia – Herriko Plaza
FESTEN AMAIERA